



2026ko martxoaren 1eko jarraibidea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, unibertsitateaz kanpoko irakasleen ordainsariak eta ordainsari-osagarriak jaso eta eguneratzen dituen, erregelamendu bidez eguneratutako zenbatekoetan oinarrituta.

Funtzio publikoaren esparru orokorrean barne biltzen da Hezkuntza-administrazioen zerbitzura dauden irakasleen ordainsari-araubidea, eta Estatuak emandako oinarritzko araudira egokitzen da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua funtzionario publikoen estatutu-araubidearen oinarrien arloan Estuari esleitzen dizkion eskumena dela eta.

Oro har, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu legegilearen bidez onartuak, funtzionarioen ordainsari-sistemaren oinarritzko printzipioak ezarri, eta ordainsarien egitura definitzen du (oinarritzkoak eta osagarriak), bai eta haiek zehazteko irizpide orokorrak ere, 22. artikulutik 24.era xedatutakoaren arabera.

Halaber, funtzio publikoaren arloko Estatuko araudiak oinarritzko esparru hori garatu izan du funtzionarioen ordainsari-kontzeptuen egitura eta izaera arautzen duten erregelamendu-xedapenen bidez. Xedapen horien artean dago apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretua, Estatuko Administrazioko funtzionarioen ordainsarien araubidea ezartzen duena, eta zeina oinarritzkoa den administrazio publiko guztiei oro har aplikatu beharreko alderdietan.

Era berean, urtero onartzen diren Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeek funtzionarioen oinarritzko ordainsarien zenbatekoak finkatzen dituzte — soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak —, bai eta ordainsari-igoeraren muga orokorrak ere, eta nahitaezko erreferentzia dira hezkuntza-administrazio guztietan irakasleen ordainsariak zehazteko.

Irakasleen eremu espezifikoan, hezkuntzaren arloko Estatuko oinarritzko araudia, gaur egun, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak; 3/2020 Lege Organikoak, abenduaren 29koak, emandako idazketan jasota dagoenak, irakasle funtzionarioen estatutu-araubidearen printzipio orokorrak ezartzen ditu, funtzio publikoaren araudira igorri ordainsari-araubidea zehazteko.

Arau-esparru horretan, hezkuntza-administrazioei dagokie, beren eskumenak baliatuz, irakasleen ordainsariak kudeatzea, aplikatzea eta garatzea, betiere nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptuen informazio egokia, gardentasuna eta aplikazio zuzena bermatuz.

Abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretuak sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloko presazko neurriak onartu zituen. Arau hori Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu zen 2025eko abenduaren 3an, eta 2025-2022 aldirako ordainsari-igoerak jasotzen ditu. Zehazki, % 2,5eko soldata-igoera ezartzen da 2025eko



ekitaldirako, 2024ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien gainean, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. 2026ko ekitaldirako, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien gaineko % 1,5eko igoera ezartzen da, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta % 0,5 gehigarri kontsolidagarria, 2026ko inflazioa % 1,5 baino handiagoa bada.

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzuko irakasleen kidegoetako funtzionarioek aurrekontu-legeek gainerako funtzionarioentzat ezartzen dituzten kontzeptu eta zenbateko bereko oinarritzko ordainsariak jasotzen dituzte. Hala ere, ordainsari osagarriek kidego horien araubide propio eta espezifikoari erantzuten diote.

252/2025 Dekretuak, abenduaren 30ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak (2026-01-29ko EHAA), osagarri berri bat jasotzen du 67. artikuluan, zeinak EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan lan egiten duten langileen irakaskuntza-funtzioaren hezkuntza-konplexutasuna handitu izana aitortzen duen. Hala, 2025-2026 ikasturtean, osagarri horren zenbatekoa soldata-kontzeptu guztien % 2 izango da, kalkulu horretarako ez dira kontuan hartuko zuzendaritza-karguen eta kargu akademikoen osagarriak, seiurtekoak, eginkizunari lotutako osagarriak eta osagarri pertsonal iragankorrak. Gainera, 67. artikulua berak dioen bezala, sinadura momentuan, hau da, 2025eko ekitaldian, dauden kontzeptuak eta zenbatekoak hartuko dira kontuan.

Era berean, 2025eko apirilaren 10ean, 69/2025 Dekretua, martxoaren 25ekoa, argitaratu zen, zeinaren bidez onartzen baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, hizkuntza-irakaskuntzak, arte-irakaskuntzak, musika-irakaskuntzak, kirol-irakaskuntzak, urrutiko hezkuntza eta helduen hezkuntza ematen dituzten Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoetako lanpostuen zerrenda, 2024-2025 ikasturtean irakaskuntza horiei dagozkien irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioentzat eta lan-kontratuko irakasleentzat gordeak. Dekretu hori, halaber, 202/2025 Dekretuaren bidez aldatu zen; 202/2025 Dekretua, urriaren 21ekoa, *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, hizkuntza-irakaskuntzak, arte-irakaskuntzak, musika-irakaskuntzak, kirol-irakaskuntzak, Urrutiko Hezkuntza eta Helduen Hezkuntza ematen duten Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoetako lanpostuen zerrenda onartzen duen Dekretua aldatzen duena; irakaskuntza horiei dagozkien irakasle lan-kontratudunentzat eta irakasleen kidegoetako funtzionarioentzat daude gordeta lanpostu horiek*. 69/2025 Dekretuan, martxoaren 25ekoan, % 30eko igoera jasotzen da Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian agertzen diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako, hizkuntzen irakaskuntzako, arte-irakaskuntzako, musika-irakaskuntzako, kirol-irakaskuntzako, urrutiko hezkuntzako eta helduen hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritza-karguetarako osagarrietan.



Era berean, egun berean argitaratu zen 70/2025 Dekretua, martxoaren 25ekoa, Hezkuntza Sailaren mendeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan, Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan maisu-maistrentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen. Dekretu horrek, halaber, ikastetxe horietako zuzendaritza-karguei zuzendutako osagarriaren % 30eko igoera jasotzen du.

Azkenik, 252/2025 Dekretua, abenduaren 30ekoa, (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duena) indarrean jarri zenetik, irakasleentzako osagarri ekonomiko berriak ezarri dira. Horien artean, besteak beste, berrikuntza-arduradunaren kargu akademikoaren gehigarria, edo orientazioko/aholkularitzako langileentzat aitortzen dena nabarmendu behar dira. Gainera, zuzendaritza-kargu berriak gehitu dira Lanbide Heziketako ikastetxeetan.

Unibertsitateaz kanpoko irakasleei aipatutako ordainsariak ordaintzeko egin behar diren nominak egitea errazteko, zuzendaritza honek egokitzen jotzen du jarraibide hauek ematea, zeinak aurrekontu-araudian, eta unibertsitateaz kanpoko irakasle horien ordainsari-araubidea arautzen duten gainerako arauetan xedatutakoa zorrotz aplikatzera mugatzen diren. Hau da, jarraibide honen helburu bakarra gaia arautzen duen araudi osoa bateratzea da, ordainsari-kontzeptuak errazago ulertzeko eta horiek guztiak dokumentu bakar batean jasotzeko.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak 11. artikuluan jasotzen ditu Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza honen eskumenak. Lehenengo apartatuak honako hau ezartzen du:

1. – Saileko zuzendaritzen egiteko orokorrean gain, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak artikuluan honen 2. apartatuan zerrendatzen diren egitekoak eta jardun-arloak ditu esleitura. Honako hauei buruzkoak dira, berariaz besterik esaten ez bada: goi-mailakoak ez diren irakaskuntzetako, lanbide-heziketako eta MECES 1 mailako unibertsitateaz kanpoko goi-mailako beste titulazio batzuetako ikastetxeei, ikerkuntza eta irakaskuntza laguntzeko zerbitzuei, hezkuntza-ikuskaritzari eta Hezkuntza Sailaren lurralde-ordezkaritzari atxikitako langileak:

a) Irakasleak.

[...]

2. – Aipatutako langile horiei dagokienez, zuzendaritzari honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio:

[...]

d) Aurreko puntuko a), b), c) eta e) letretan zehaztutako langileen nominak kudeatu eta kontrolatzea, hargatik eragotzi gabe beste organo batzuen eskudantziak.



1) Langileak ahalik eta egokien kudeatzeko irizpide eta jarraibideak ematea.

Hori dela eta, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza hau da irakasleen nominari buruzko eskumena duen zuzendaritza, eta hauek kudeatzeko jarraibide egokiak emateko eskumena duena.

Azaldutakoaren arabera, honako hau

**HONAKO HAU XEDATZEN DUT**

Lehenengoa. – Soldata, sei hileko aparteko ordainsaria, antzinasuna eta oinarrizko aldea. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzuko irakasleen kidegoetako funtzionarioek erregelamenduz zehazten diren oinarrizko soldata, sei hileko aparteko ordainsaria eta hirurtekoak (antzinasuna eta oinarrizko diferentzia gisa ordaintzen direnak) jasoko dituzte. Soldataren zenbatekoa hamabi hilekotan jasoko da, eta sei hilekoko aparteko ordainsaria sei hilekoko bi ordainsaritan jasoko da, bata ekainean eta bestea abenduan:

Soldata eta sei hileko aparteko ordainsaria:

KIDEGOIA	SOLDATA (12)	APARTEKO ORDAINSARIA (2)
Hezkuntzako ikuskatzaileak	1.387,24€	856,05€
Katedradunak	1.387,24€	856,05€
Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Arte Plastiko eta Diseinuko eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak	1.387,24€	856,05€
Lanbide Heziketako irakasle teknikoak (desagertzeak) eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko tailerreko maisu-maistrak	1.199,52€	874,83€
Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialistak	1.199,52€	874,83€
DBHko irakasleak	1.199,52€	874,83€
Maisu-maistrak	1.199,52€	874,83€

* Nomina-kodeak: 1000 soldata/1530 sei hileko aparteko paga

Hirurtekoak: hirurtekoen zenbatekoa bi kontzeptutan jasotzen da nominan: antzinasuna eta oinarrizko aldea. Azken kontzeptu horrek konpentsatu egiten du hirurteko bakoitzean Administrazio Orokorreko hirurtekoarekin dagoen aldea. Hirurtekoa zerbitzu aktiboko 3 urte bakoitzeko hobetzen da, eta zerbitzuak eman diren kidegoan sortzen da. Beharrezko baldintzak bete eta hurrengo hilabetea sortuko ditu ondorio ekonomikoak.



	Lanpostua	Hirurtekoa		Aparteko paga		Oinarrizko aldea		GUZTIRA
		Urtea	Hilean (12)	Urtea	Sei hilean (2)	Urtea	Hilean (12)	Urtea
A.2	LHko irakasle ohia, DBHko maisu-maistrak, maisu-maistrak	522,48€	43,54€	63,48€	31,74€	110,29€	9,19€	696,25€
A.1	Ikuskatzailea, Bigarren Hezkuntzako irakasle katedraduna, Bigarren Hezkuntzako irakaslea	640,68€	53,39€	65,92€	32,96€	125,72€	10,48€	832,32€

* Nomina-kodeak: 1020 Antzinatasuna/1027 Oinarrizko aldea

Bigarrenena. - Destino Osagarria. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzuko irakasleen kidegoetako funtzionarioek beren mailari dagokion lanpostu-mailako osagarria jasoko dute.

Irakasleen kidegoei dagokien destino-osagarriaren maila ondoren adierazten dena izango da, betetzen den lanpostu zehatza edozein dela ere.

KIDEGOA	AZPITALDEA	MAILA	ZENBATEKOA HILERO (14)
Hezkuntzako ikuskatzaileak	A1	26	1.083,17€
Katedradunak	A1	26	1.083,17€
Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Arte Plastiko eta Diseinuko eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak	A1	24	880,09€
Lanbide Heziketako irakasle teknikoak (desagertzear) eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko tailerreko maisu-maistrak	A2	24	880,09€
Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialistak	A2	24	880,09€
DBHko irakasleak	A2	24	880,09€
Maisu-maistrak	A2	21	701,21€

* Nomina-kodea: 2004 Lanpostu-mailako osagarria



Hirugarrena.- Berariazko osagarria. Berariazko osagarriak honako kontzeptu hauek biltzen ditu:

a) Berariazko osagarri orokorra. Funtzio publikoko irakaskuntzako lanpostuak betetzeagatik, oro har, honako zenbateko hauek jasoko dira:

KIDEGOA	ZENBATEKOA	
	HILEAN (14)	URTEKOA
Hezkuntzako ikuskatzaileak	1.656,79€	23.195,06€
Katedradunak	968,51€	13.559,14€
Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Arte Plastiko eta Diseinuko eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak	797,33€	11.162,62€
Lanbide Heziketako irakasle teknikoak (desagertzeak) eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko tailerreko maisu-maistrak	932,57€	13.055,98€
Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialistak	932,57€	13.055,98€
DBHko irakasleak	704,28€	9.859,92€
Maisu-maistrak	704,28€	9.859,92€

* Nomina-kodea: 2103 Berariazko osagarria

b) Berariazko osagarriaren dedikazio bereziko osagaia – Kapitalizazioko berariazko osagarria (seiurtekoak). Karrera profesionalari eta irakaskuntza-prestakuntzari lotutako ordainsari-sistema berria ezarriko duen negozioazio kolektiboa burutu arte, Hezkuntza Sailak orain arte garatu duen seiurtekoen kapitalizazio sistema aplikatzen jarraituko du. Irakaskuntzako funtzio publikoan lan egindako sei urteko bakoitzeko seiurteko bat jasoko da; hala ere, bigarren eta hirugarren seiurtekoak zerbitzuak ematen diren lehen egunetik jasoko dira.

Aldi horiek zenbatzeko, kontuan hartuko dira hezkuntza-administrazioetako lanpostu-zerrendetako lanpostuetan emandako zerbitzuak edo Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 87. artikulua 3. apartatuan berariaz aipatzen diren zerbitzu berezietako egoeretako batean emandakoak, irakaskuntzako funtzio publikora edo hezkuntzako ikuskaritza-funtziora itzultzen direnean.

Aldi horiek metagarriak izango dira eragin ekonomikoari dagokionez, eta, oro har, ezin izango dira hogeita hamar urtetik gorakoak izan. Eskatutako baldintzak bete eta hurrengo hilabetearen sortuko dira osagarri honen ondorio ekonomikoak. Salbu 2. eta 3. Seiurtekoak, zeinak lehen egunetik ordainduko diren Kapitalizazioko berariazko osagarriaren bidez.



Zenbateko hauek jasoko dira:

SEIURTEKOAK	HILEKO ZENBATEKOA (14)	URTEKO ZENBATEKOA
1.a	96,81€	1.355,34€
2.a eta 3.a *	316,77€	4.434,78€
4.a	57,75€	808,50€
5.a	47,86€	670,04€

* Nomina-kodea: 2108 C.E. kapitalizazioa (2.a eta 3.a)/2130 CE 1. maila dedikazio berezia (1.a)/etab.

c) Irakaskuntza-konplexutasunaren berariazko osagarria unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan.

	URTEKOA	HILEAN (14)
Maisu-maistrak	705,83€	50,42€
DBHko irakasleak	755,17€	53,94€
Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialistak	818,15€	58,44€
Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Arte Plastiko eta Diseinuko eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak	824,49€	58,89€
Lanbide Heziketako irakasle teknikoak (desagertzeaz) eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko tailerreko maisu-maistrak	927,73€	66,27€
Hezkuntzako ikuskatzaileak	1.117,61€	79,83€

* Nomina-kodea: CE 21xx Ad. Osag. Ikastetxe publikoetako irakaslea

Laugarrena.- Kargu akademiko eta zuzendaritza-karguetan jarduteagatik finkatutako berariazko osagarriak. Kargu akademikoak edo zuzendaritza-karguak betetzeagatik jasoko dira, ebazpen honen **I. ERANSKINEAN** azaltzen diren zenbatekoekin.

Atal honetako osagarriei dagokienez, arestian adierazitako kontzeptuetako bat bakarrik ordaindu ahal izango da. Betetzen den lanpostuaren arabera bi osagarri daudenean bi kontzepturengatik desberdinengatik, zenbatekorik handiena duena jasoko da.

* Nomina-kodea: 2145CE Kargu gehigarria/Funtz./etab.

**Bosgarrena.- Bitarteko irakasleen ordainsariak.**

Bitarteko funtzionarioen ordainsariak dagozkien kidegoetako karrerako funtzionarioen kontzeptu eta zenbateko berak izango dituzte.

Gainera, Hezkuntza Sailak, ordezkapen guztiak betetzeko konpromisoa kontuan hartuta, ordezeko langileen lanerako prestasuna sarituko du ikasturtean zehar baldintza hauek betetzen badituzte:

- Gutxienez 165 egun naturaleko epean ordezkapen-modalitatean lan egin izana.

- Lanerako prest egon izana okupatuta egon ez den aldietan. Hala ere, lan egiteko prest ez egotea ahalbidetzen duten salbuespenezko egoera batzuk daude: aldi baterako ezintasuna, aitatasunagatiko/amatasunagatiko baimena edo lizentzia, lan-istripua, haurdunaldi-arriskua, azterketa mediko ofizialak edo lehen edo bigarren mailako senide baten ospitaleratzea.

- Bidezko arrazoirik gabe esleipenari uko egin ez izana.

Baldintza horiek betetzen dituzten langileek uztailleko eta abuztuko ordainsari osoak jasoko dituzte, baita aldi horiei dagozkien Gizarte Segurantzako kotizazioak, hautagaien zerrendako puntuazioa eta antzinasuna ere. Konpentsazio horrek ez du opor-egunik sortuko, izan ere abuztuari dagozkion egunak osotasunean ordaintzen diren oporrak dira, Akordio Arautzailean bertan xedatzen den bezala.

Baldintza horiek betetzen dituzten langileek beti sortzen dute izendapen eta kargu-uzte berri baterako eskubidea. Izendapen horrek Gizarte Segurantzaren alta ematea dakar beti, eta, horregatik, langabezia-prestazioak jasotzen ari diren pertsonen dagokion erakundera joan beharko dute prestazioaren kobrantza eteteko Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden bitartean.

Ekainaren 30a baino lehen izendapenaren amaieragatik baja eman zaien pertsonen, baldin eta uztailleko eta abuztuko izendapenen hasiera-datan aldi baterako ezintasun-egoeran badaude, edo amatasun-, harrera-, adopzio- edo aitatasun-egoeran, izendapen egitea eta Gizarte Segurantzaren alta ematea eragozten badie, dagozkien egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte uztailaren 1a baino lehen dagokion Hezkuntza Ordezkaritzan.

Era berean, uztailleko izendapenari dagokion hasiera-datan lan-kontratu bat duten pertsonen ezin izango dute izendatuak izan, salbu eta bi jardueren bateragarritasuna aitortuta duten.

Kasu horietan, Gizarte Segurantzaren alta emanda izendapen bat formalizatzea ezinezkoa denez, izendapena atzeratu ahal izango dute, betiere uztailaren 1a baino lehen udako izendapenari lehen aipatutako egoera amaitu ondoren hasiera ematea eskatu ez badute. Izendapena abuztuaren 31n amaituko da kasu guztietan. Azken aukera horri heldu



ahal izateko, interesdunak konpromisoa hartu beharko du izendapena eragotzi zuen egoeraren amaiera dagokion lurralde-ordezkaritzan jakinarazteko era justifikatutan. Jakinarazpen hori egiten denetik aurrera, dagokion gainerako izendapena egingo da, horren indarraldia ezingo da abuztuaren 31tik aurrera luzatu.

Ordezkoak zerbitzua ikasturtean zehar 165 egun baino gutxiagoz eman badu, izendapena uzailean egingo da, ikasturtean zehar sortutako opor-egunengatik ,eta aldi horretan ateratzen den batez besteko lanaldian. Aldi horretan, aldi baterako ezintasun-egoeran, amatasun-, harrera-, adopzio- edo aitatasun-egoeran edo bateragarritasunik gabeko lan-kontratuan egoteagatik izendatu ezin diren kasuei aurreko xedapenak ezarritakoak aplikatuko zaizkie.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 24a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria

Unai Nieto Marijuan



I. ERANSKINA

OSAGARRI AKADEMIKOEN ETA ZUZENDARITZA OSAGARRIEN TAULA

Gorputza	Deskribapena	<i>Ikastetxeko ikasgela/ikasle kopurua</i>	Hilean (€)	Guztira (€)
	Tutorea - Berrikuntza arduraduna (BeA) Aholkularia/orientatzailea 16. maila 0953 irakasgaia 20. maila 0256 irakasgaia		71,35	998,96
	Zikloko koordinatzailea		64,84	907,73
Maisu/maistra EG01 Ikasgelen araberako sailkapena	Zuzendaria - A	> 55	743,78	10.412,94
	Zuzendaria - B	> 23	699,14	9.787,97
	Zuzendaria - C	> 15	553,35	7.746,95
	Zuzendaria - D	> 7	455,45	6.376,29
	Zuzendaria - E	> 2	365,69	5.119,70
	Zuzendaria - F	< = 2	253,57	3.549,93
	Zuzendaritza kargua - A	> 55	348,16	4.874,30
	Zuzendaritza kargua - B	> 23	337,46	4.724,46
	Zuzendaritza kargua - C	> 15	337,46	4.724,46
	Zuzendaritza kargua - D	> 7	262,50	3.675,00
	Zuzendaritza kargua - E	> 2	68,23	955,20
	Zuzendaritza kargua - F	< = 2	68,23	955,20
	Ikasketa-buruaren albokoa		262,50	3.675,00
	Administratzaile albokoa		262,50	3.675,00
	HHko maisu/maistra		80,16	1.122,31
LH Irakasle teknikoa EG04 Ikasleen araberako sailkapena	Zuzendaria - A	> 1.800	827,46	11.584,50
	Zuzendaria - B	> 1.000	739,81	10.357,30
	Zuzendaria - C	> 600	692,25	9.691,52
	Zuzendaria - D	< = 600	648,08	9.073,14



	Zuzendaritza kargua - A	> 1.800	459,85	6.437,83
	Zuzendaritza kargua - B	> 1.000	449,24	6.289,42
	Zuzendaritza kargua - C	> 600	366,57	5.131,97
	Zuzendaritza kargua - D	< = 600	366,57	5.131,97
	Estrategia Zuzendaria / Berrikuntza Zuzendaria / Zuzendari Operatiboa LHII	> 1.800	323,53	4.529,42
	Estrategia Zuzendaria / Berrikuntza Zuzendaria / Zuzendari Operatiboa LHII	> 1.000	316,07	4.424,97
	Estrategia Zuzendaria / Berrikuntza Zuzendaria / Zuzendari Operatiboa LHII	> 600	257,90	3.610,62
	Estrategia Zuzendaria / Berrikuntza Zuzendaria / Zuzendari Operatiboa LHII	< = 600	257,90	3.610,62
	Idazkari albokoa		154,86	2.168,08
	Ikasketa-buruaren albokoa		366,57	5.131,97
	Administratzaile albokoa		366,57	5.131,97
	Lanbide Heziketaren koordinazioa eta enpresako edo pareko erakundeko prestakuntzaren kudeaketa eta tutoretza		64,29	900,06
	Kudeaketa ekonomikoaren arduraduna		64,29	900,06
	LHko mantentze-lanen eta obren arduraduna		64,29	900,06
	Kalitatearen arduraduna, ISO 9001 kalitate-ziurtagiria duten ikastetxetan		64,29	900,06
	Mintegi burua / Saileko burua		64,29	900,06
DBHko irakaslea EG03ko ikasleen araberako sailkapena	Zuzendaria - A	> 1.800	871,06	12.194,82
	Zuzendaria - B	> 1.000	783,42	10.967,94
	Zuzendaria - C	> 600	735,86	10.301,99
	Zuzendaria - D	< = 600	691,70	9.683,82
	Zuzendaritza kargua - A	> 1.800	503,44	7.048,10
	Zuzendaritza kargua - B	> 1.000	492,85	6.899,88
	Zuzendaritza kargua - C	> 600	386,89	5.416,48



	Zuzendaritza kargua - D	< = 600	366,57	5.131,97
	Estrategia Zuzendaria / Berrikuntza Zuzendaria / Zuzendari Operatiboa LHII	> 1.800	354,19	4.958,72
	Estrategia Zuzendaria / Berrikuntza Zuzendaria / Zuzendari Operatiboa LHII	> 1.000	346,74	4.854,42
	Estrategia Zuzendaria / Berrikuntza Zuzendaria / Zuzendari Operatiboa LHII	> 600	272,20	3.810,77
	Estrategia Zuzendaria / Berrikuntza Zuzendaria / Zuzendari Operatiboa LHII	< = 600	257,90	3.610,62
	Idazkari albokoa		154,86	2.168,08
	Ikasketa-buruaren albokoa		366,57	5.131,97
	Administratzaile albokoa		366,57	5.131,97
	Mintegi/saileko burua		93,15	1.304,05
	HII mintegi/saileko burua		93,15	1.304,05
	DBHko koordinatzailea		93,15	1.304,05
	Lanbide Heziketaren koordinazioa eta enpresako edo pareko erakundeko prestakuntzaren kudeaketa eta tutoretza		93,15	1.304,05
	Kudeaketa ekonomikoaren arduraduna		93,15	1.304,05
	Mantentze-lanen eta obren arduraduna		93,15	1.304,05
	Kalitatearen arduraduna, ISO 9001 kalitate-ziurtagiria duten ikastetxetan		93,15	1.304,05
	HEOen Ebaluazio Batzordearen koordinazio orokorra		308,10	4.313,45
DBHko irakasle katedraduna EG02 Ikasleen araberako sailkapena	Zuzendaria - A	> 1.800	740,99	10.373,85
	Zuzendaria - B	> 1.000	653,51	9.149,18
	Zuzendaria - C	> 600	606,06	8.484,85
	Zuzendaria - D	< = 600	561,93	7.867,03
	Zuzendaritza karguak - A	> 1.800	374,07	5.237,04
	Zuzendaritza karguak - B	> 1.000	363,49	5.088,82
	Zuzendaritza karguak - C	> 600	257,72	3.608,14



	Zuzendaritza kideak - D	< = 600	215,44	3.016,21
DBHko maisu/maistra EG01 Ikasgelen araberako sailkapena	Zuzendaria - A	> 55	827,46	11.584,50
	Zuzendaria - B	> 23	739,81	10.357,30
	Zuzendaria - C	> 15	692,25	9.691,52
	Zuzendaria - D	> 7	648,08	9.073,14
	Zuzendaria -E	< = 7	520,00	7.280,06
	Zuzendaritza kideak - A	> 55	459,85	6.437,83
	Zuzendaritza kideak - B	> 23	449,24	6.289,42
	Zuzendaritza kideak - C	> 15	366,57	5.131,97
	Zuzendaritza kideak - D	> 7	366,57	5.131,97
	Zuzendaritza kideak - E	< = 7	198,33	2.776,55
	Ikasketa-buruaren albokoa		366,57	5.131,97
	Administratzaile albokoa		366,57	5.131,97
	DBHko zuzendariondokoa- A		464,79	6.507,04
	DBHko zuzendariondokoa - B		454,06	6.356,83
	DBHko zuzendariondokoa - C		370,49	5.186,92
	DBHko zuzendariondokoa - D		370,49	5.186,92
	Idazkari-albokoa		160,36	2.244,98
	DBHko mintegi/saileko burua		65,01	910,15
	DBHko koordinatzailea		65,01	910,15
	DBHko irakasle ordezkariak		65,01	910,15
	Kalitatearen arduraduna		65,01	910,15
Ikuskariak	Lurraldeko burua		490,37	6.865,14
	Mailako koordinatzailea (ikuskatzaile nagusia)		638,97	8.945,62
	Ikuskari nagusia		1.366,93	19.137,03
	Zonaldeko burua		247,60	3.466,39
IRALE	Zuzendaria		492,28	6.891,85



	Ikasketa burua		246,16	3.446,21
	Irakaslea		164,11	2.297,47
	Jarraipen arduraduna		246,16	3.446,21
Berritzegunea	Zuzendaria		583,37	8.167,20
	Programen arduraduna		452,76	6.338,65
	Aholkularia		395,87	5.542,18
	Berritzegune nagusiko zuzendaria		783,51	10.969,13
IVEI-ISEI	Zuzendaria		783,51	10.969,13
	Koordinatzailea		626,82	8.775,53
	Teknikari espezialista		395,87	5.542,18
AVECCFP, IVCFP, TKNIKA	Zuzendaria		760,70	10.649,83
	Koordinatzailea		608,58	8.520,17
IDEATK, IVAC	Zuzendari exekutiboa		807,04	11.298,51
	Arloko zuzendaria		645,63	9.038,84
TKNIKA	Zuzendari exekutiboa		807,04	11.298,51
	Arloko zuzendaria		645,63	9.038,84
CEIDA-IIHII	Zuzendaria		452,76	6.338,65
	Aholkularia		395,87	5.542,18
BARNETEGI	Zuzendaria		328,21	4.594,95
	Teknikaria		246,16	3.446,21